

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 852

*96/2020 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitara ematen da I. eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatzen direla, Medikuen kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetan izanik.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA, 28. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiaren otsailaren 7ko 110/2018 Ebazpenaren bitartez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Medikuen kategorian estatutupeko pertsonal izateko hautaprobak deitu ziren, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetan izanik (2018ko otsailaren 15eko EHAA, 33. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren irailaren 2ko 612/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko agintzen da oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Medikuen kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobei dagoen puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetan izango dute destinoa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Medikuen kategoriako izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako webgunean argitaratzeko agintzea I. eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatzen direla, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Medikuen kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusian (Egoitza Zentralean) hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean

nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko deklarazio bat edo hitzmate bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

- Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikoetan hala eskatzen denean.
- Diziplina-espedita bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzmatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzmatea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

- Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatu-tupeko pertsonal gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesatuei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginbideak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuaren barruan esleitu zaien erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020 otsailaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN LUIS DIEGO CASALS.

2020ko otsailaren 17a, astelehena

I. ERANSKINA  
2016-2017ko OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA  
DESTINOEN ESLEIPENA  
KATEGORIA: FAK. ESP. PEDIATRIA MEDIKUA (LMT)  
TXANDA: IREKIA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Derrigorrezko data	
***2401**	Astobiza Beobide, Eider	Barrualde-Galdakao ESI-a, Amurrio (OZ), goizez	2HE	2008-06-01
***6593**	Del Arco Leon, Laura	Uribeko ESI-a, Las Arenas (OZ), arratsaldez	2HE	2005-06-01
***7209**	Herrero Goñi, Maria	Ezkerrialdea-Enkarterri-Gurutzeko ESI-a, Trapagaran (OZ), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	2016-12-03
***7374**	Zubiatur Alonso, Oihane	Barrualde-Galdakao ESI-a, Iurreta (Kontsultategia), goizez	2HE	2008-06-01
***5969**	POza Del Val, Maria Del Carmen	Uribeko ESI-a, Las Arenas (OZ), arratsaldez	2HE	
***4196**	Ferro Galardi, Leire	Arabako ESI-a, Sansomendi (OZ), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	2005-06-01
***8590**	Blazquez Trigo, Sonia	Bilbo-Basurtuko ESI-a, Begoña / Zurbaran (LAU), arratsaldez eta goizeko agenda irekita	2HE	2010-10-23
***0524**	Lopez Diaz, Amaia	Bilbo-Basurtuko ESI-a, Gazteleku (LAU), arratsaldez eta goizeko agenda irekita	2HE	2011-06-01
***2755**	Ibarrola Vidaurre, Ainhoa	Ezkerrialdea-Enkarterri-Gurutzeko ESI-a, Balmaseda / Karrantza (OZ), goizez	2HE	2010-06-01
***3696**	MuñOZ Aramburuzabala, Jon	Uribeko ESI-a, Leioa (OZ), arratsaldez	2HE	2007-06-01
***0708**	Lopez Cuesta, Sheila	Goierri Urola Garaiko ESI-a, Azkoitia (OZ), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	2005-06-01
***4201**	Garcia Ulazia, Garazi	Barrualde-Galdakao ESI-a, Gemika (OZ), arratsaldez eta goizeko agenda irekita	2HE	2011-06-01
***7994**	Garcia Urabayen, Diego	Debarreneko ESI-a, Ermua (OZ), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	
***7498**	Del Hoyo Moracho, Marta	Arabako ESI-a, Estibalitzeko Andre Maria (Anbulatorioa), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	
***4263**	Garcia Valle, Sara	Barrualde-Galdakao ESI-a, Amurrio (OZ), goizez	2HE	2010-06-01
***5007**	Aristizabal Segarra, Amaia	Donostialdeko ESI-a, Hernani (OZ), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	2007-06-01
***8502**	Larrauri Goiri, Ainhoa	Bilbo-Basurtuko ESI-a, Miribilla (LAU), arratsaldez eta goizeko agenda irekita	2HE	2005-06-01
***3529**	Eizmendi Bereciartua, Miren	Tolosaldeko ESI-a, Billabona (Kontsultategia Anoeta), goizez	2HE	2016-07-18
***3589**	Martinez-mugica Barbosa, Otiila	Barrualde-Galdakao ESI-a, Lemoa (Kontsultategia), goizez	2HE	2008-06-01

2020ko otsailaren 17a, astelehena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Derrigorrezko data	
***3049**	Garcia Ruiz, Sara	Donostialdeako ESI-a, Erreterria Izieta (OZ), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	2014-12-09
***9485**	Echeverria Hernando, Nerea	Donostialdeako ESI-a, Urnieta (OZ), goizez	2HE	2008-06-01
***9174**	Martin Gonzalez, Jessica	Arabako ESI-a, Salburua (OZ), arratsaldez	2HE	
***7433**	Perez Santaolalla, Elena	Bisadoako ESI-a, Irun erdialdea, arratsaldez, goizeko agenda irekita eta ospitalean guardiak izanik	2HE	
***7880**	Salazar Merino, June	Barrualde-Galdakao ESI-a, Zornotza (OZ), arratsaldez eta goizeko agenda irekita	2HE	2011-06-01
***1262**	Ormazabal Gaztañaga, Garazi	Donostialdeako ESI-a, Zarauz (OZ), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	2005-06-01
***2471**	Sanchez Ramos, Noemi	Barrualde-Galdakao ESI-a, Zornotza (OZ), arratsaldez eta goizeko agenda irekita	2HE	2011-06-01
***7929**	Rosell Mardaras, Sara	Barrualde-Galdakao ESI-a, Gernika (OZ), arratsaldez eta goizeko agenda irekita	2HE	2005-06-01
***0644**	Cerezo Aguirre, Andrea	Debabarreneko ESI-a, Elgoibar, 10:00-etik 17:00-ra	2HE	2005-06-01
***2553**	Mendiola Ruiz, Raquel	Donostialdeako ESI-a, Erreterria Izieta (OZ), arratsaldez	2HE	2005-06-01
***1767**	Ortega Gonzalez, Laura	Barrualde-Galdakao ESI-a, Bermeo (OZ), lanaldi zaitua	2HE	2008-06-01
***8216**	Agirregoitia Fernandez, Jone	Arabako ESI-a, Estibalitzeko Andre Maria (Anbulatorioa), goizez	2HE	2016-12-03
***4256**	Olabarri Garcia, Mikel	Arabako ESI-a, Alde zaharra (OZ), goizez	2HE	2005-06-01
***1383**	Ilundain Tirapu, Nerea	Arabako ESI-a, Abetxuko (OZ), 10:00-etik 17:00-ra	2HE	2008-06-01
***4320**	Duo Olabarria, Maria Isabel	Arabako ESI-a, Aranbizkarra II (OZ), arratsaldez	2HE	2016-12-03
***4782**	Salmon Rodriguez, Amaia	Debagoieneko ESI-a, Bergara (LAU), goizez eta ospitalean guardiak izanik	2HE	2008-06-01
***5362**	Gonzalez Camacho, Usune	Debagoieneko ESI-a, Oñati (LAU), goizez eta ospitalean guardiak izanik	2HE	2008-06-01
***8254**	Fernandez Mugaburu, Estibaliz	Arabako ESI-a, Salburua (OZ), arratsaldez	2HE	2011-06-01
***5483**	Betolaza Asua, Janire	Debagoieneko ESI-a, Oñati (LAU), goizez eta ospitalean guardiak izanik	2HE	2010-12-01
***1249**	Mendizabal Diez, Mikel	Bisadoako ESI-a, Irun erdialdea, goizez eta arratsaldeko agenda irekita eta ospitalean guardiak izanik	2HE	2007-06-01
***7098**	Echevarri Mendia, Janire	Bisadoako ESI-a, Irun erdialdea, arratsaldez, goizeko agenda irekita eta ospitalean guardiak izanik	2HE	2016-12-03